




AZPEITIKO EMAKUMEEN OROIMEN HISTORIKOA

Azpeitiko emakumeen memoria berreskuratzeko ibilbidea duzue esku artean. Pausoz pauso eta elkarrekin egingo dugun ibilbidea. Ibilbide fisikoa, baina, baita ibilbide sinboliko eta aldarrikatzailea ere.

Azpeitiko emakumeek herriari egindako ekarpena bistaratu eta aitortu nahi du ibilbide honek, esparru ezberdinetan jardun duten emakumeen bizipenak ezagutarazi nahi ditu. Badago berreskuratzeko premia, aitortzarako premia, oharkabean pasa zaizkigulako emakume hauetariko asko eta asko, lan isilez, Azpeitia posible egin duten eta egiten dutenak.



Ibilbidean zehar emakumeentzat garrantzitsuak izan diren eta diren gaiak landuko ditugu (lana, kulturgintza, militantzia politikoa, elkarlaguntza eta babes, etab.).

Bederatzi geldialdiko ibilbidea da. Geldialdi bakoitzean, testua irakurri, eta, ondoren, QR bidez, ibilbidea jarraitzera gonbidatzen zaituztegu. Horrela, elkarrekin egingo dugu bidea: gutako bakoitzetik abiatu eta taldera, norbanakotik kolektibora, atzera begira egindako bide honek, aurrera egiten lagun diezagun.

Azpeitiko Emakumeen Mahaiak sustatuta, eta herriko emakume ugariren inplikazioari eta lanari esker osatu den ibilbidea duzue hau. Emakumeak beste emakume batzuk egindako lana aitortzen. Elkar babesten, elkarrekin, ahalduntzen.



Hauek dira ibilbideko geldiuneetako gaiak:

- 1-IKASTOLAKO ANDEREÑOAK ETA AUZO ESKOLAK
- 2- ALPARGATERAK
- 3-NESKAMETZA ETA ZERBITZARIAK
- 4-EMAKUME BASERRITARRAK
- 5-DENDARIAK
- 6-TELEFONIKAKO LANGILEAK
- 7- ANTZERKIA ETA DANTZA/ KULTURGINTZA
- 8- LIXIBERAK
9. POLITIKAGINTZA